

**Amaia Telleria**  
**HAIZE-LEKUAK**

ALBERDANIA



Amaia Telleria  
**HAIZE-LEKUAK**

ALBERDANIA





HAIZE-LEKUAK

*Bitartean ibillico dira becatutic becatura amilduaz;  
oraiñ pensamentu batean, guero seago itz loyak gozotoro aditzean:  
oraiñ escuca, edo queñada batean, guero musu edo laztanetan:  
oraiñ ipui ciquiñac contatzen, guero dantzan,  
edo dantza ondoan alberdanian.*

J.B. AGIRRE

1. argitaraldia: 2020ko ekaina.

*Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren laguntza  
izan du liburu honek.*

© 2020, Amaia Telleria Mujika

© Argitaraldi honena: 2020, **ALBERDANIA, SL**

Istillaga, 2, beheka C - 20304 Irun

Tel.: + 34 943 63 28 14

[alberdania@alberdania.net](mailto:alberdania@alberdania.net)

[www.alberdania.net](http://www.alberdania.net)

Azaleko irudia: Kamira (Shutterstock)

Inprimatzailea: Ulzama (Huarte, Nafarroa)

ISBN digitala: 978-84-9868-620-3

ISBN papera: 978-84-9868-619-7

Legezko gordailua: SS. 513/2020



# HAIZE-LEKUAK

AMAIA TELLERIA

**ALBERDANIA**

eleberria

*Amona, zure mundua zabaldu didazulako...  
ezinbestez, zuri*

*Historia, bertatik oharkabeen pasaturiko lekuko eta parte-hartzailearen kontakizunaren ikuspegitik. Bai, hori da niri interesatzen zaidana, hori da literatura biburtu nahi nukeena.*

SVETLANA ALKSIEVTX,

Iker Sanchok itzulia



HERIOTZA HAREN ondorengo egunek nabarmen baldintzatu zuten Goiburu familiaren etorkizuna eta, guztien artean, Mikelarena bereziki. Aita ezagutu gabe koskortu beharko baitzuen neskak, argazki xume bat bera ere ez zuela, haren aurpegia ahanztera kondenatuta.

Beltzez jantzita eman omen zuen apaizak Jose Angel Goibururen aldeko hileta meza, *segundako* entierro bati zegokion bezala; zer beste espero zitekeen baserritar pobre harentzat? Hotz egiten zuen udazkeneko goiz hartan: hankartean eskuak epeldu nahi zituztenen dardarizoan sumatzen zen, malkoei eutsi nahian hasperen egiten zutenen hatsean. Ez ziren, horregatik, hutsik geratu aulkiak; emakumeak aurrean, gizonak atzean, alde batetik besterainoko ilarak izan ziren. Inork ez zuen geratu nahi Luzia alargunari doluminak eman gabe, ezta Bonipaxiri ere, Jose Angel zenaren amari.

Sudur puntak gorrituta begiratu zioten lehenengo ilarako aurpegi zurbilek eskuak gora eta behera dantzatzen zituen apaizari. Begiradak beste nonbait galdua bezala, hantxe ziren Bonipaxi, Luzia eta sei seme-alaba zaharrenak. Ondoan izango ziren hilobizale lanetan ibilitakoak ere, kanposantutik bueltan, galtza barren lokaztu eta alkandora izerdituekin. Luziarena izango zen, ordea, han sentitu zitekeen hoztasunik handiena: eliza ingurua estaltzen zuen antzigarrak gorputza hartu ziola ematen zuen, belo ikusezinean bilduta. Baserriko lanak laztutako eskuak bularraren kontra estututa, anima bat omen zirudien. Ez da lana, baina, pertsona hondatzen duena, nahigabea baizik, eta halaxe onartuko luke aurreko astean Luziaren indarra ikusi zuen edonork. Itzaliak ziren grin guztiak eta azalaren lustrea. Hala imajinatu izan zuen behintzat Mikelak etzekoen kontakizunaz josi zuen eszena.

Ez zen gutxiagorako, gainera. Ez zen besterik aitatuko, hiletara doluminak ematera baino, herriko azken kontuen berri jakitera joandakoen artean. Lepoak tente, eskuak bularrean elkartuta, kristau ezin hobeak zirelako ustearekin: «49 urterekin, gizarajoa», «gajoa Luzia, a ze *udibaia* etorri zaiona», «aurretik bi ume jaioberritan galdua, gainera», «apendizitisa izan omen da, eta Don Joaquin

haren ondoan, zer gertatzen zitzaion ezin asmatuta!», «zer gertatuko ote da orain baserriarekin?».

Luziak ez zituen koru hartako ahotsak entzuten, ordea. Ingurukoek egurrezko bankuan eserita ikusten zuten arren, Iruinbarrenako sukaldean zegoen haren gogoia, hiletara etorri ez zen alaba txikiaren aurpegi maleziagabekoari begira.

Mikela aita noiz esnatuko zen galdetzen ari zen, bere aita maitea, bizkarrean hartuta Lertxundiko zelaietan zituzten sagar mota ezberdinak ezagutzera eramaten zuena.

Mikelaren begien koloreko zaldia erosita bueltatuko zela zin eginda irten zen bart etxetik Hermandadekoekin afaltzera. Ametzaririk ederrena erosiko ziola agindu zion, baina nork ulertarazi lau urteko umeari, zaldirik gabe geratzeaz gainera, aita ez zela bizirik bueltatu.

Luziak parean zeukan apaiza baino garbiago ikusi zuen neska txikia, belaunetik behera tanta bero bat irristatzen zitzaiola. Kosta egin zitzaion malkoei eustea, baina kopeta zimurtu eta burua tente jarraitu zuen, erretaulako San Migeli begira; urre kolorez margotutako zutabeen erdian ageri zen, garaitutako deabrua oin azpian. Armadurak eta hego loriatsuek bezainbesteko errespetua sortzen zuen ezpata distiratsuak. Eskuak estutu zituen Luziak, larritzen zen guztietan bezala; San Migelek babestuko ahal zuen Jose Angel han goian!

Bazuen forma ematen ausartzen ez zen beste buruhauste bat ere, bazen-eta Jose Angelek aitarekin erosi zituen lurren jabe egin nahi zuenik. Zortzi seme-alaba zeuzkan berak aurrera ateratzeko; aurreak erakutsi beharko zuen atzea nola dantzatu.

REPARAZTARREN ETXEA gaztelua izan zitekeen Iruinbarrenarekin alderatuta. Goroldioak hartzen hasitako burdin hesiaren atzean, sigi-saga egiten zuen bideak eraikin ikusgarri baterantz, aldamenetan lorategi zabala ageri zela. Karratu forman inausitako heskaiaren aurrean larrosa ilarak, ondo zainduak.

–Hau da? –galdetu zion Mikelak amari, listua irentsiz.

Baiezkoa egin zion Luziak, atea bultzatzean. «Fonda de Vicente Reparaz» zioten letrei begira egin zuten bidea ama-alabek. Ostatua itxita zegoen ordurako, baina ospe handikoa izan omen zen garai batean. Ahizpek Mikelari kontatu ziotenez, jende inportantea bizi izandako tokia zen hura.

Ez zuen zalantza izpirik izan Mikelak ingurura begiratutakoan: arnasa mozteko moduko lekua zen. Loretan ziren etxearen kontrako hortentsiak, erreten mehe batek biltzen zituenak, baina gaztainondoaren tankerako zuhaitz hostotsu bat, etxeko terraza bezain garaia, zen bertako protagonista. Enborrari eta hostoei begiratze hutsarekin ezagutzen zituen neskak Iruinbarrena inguruko arbola guztiak, baina hura bezalakorik ikusi gabea zen artean.

Eskuaz estutu zuen soinekoaren tela ibiltzerakoan. Ordurako neska koskorra eginda zegoen Mikela, hamahiru urterekin loratzen hasia, sentimenduak azalazalean. Ume gorputza zeukan, hala ere, nahi baino bular txikiagoak, nahi baino aldaka estuagoak...

Ate sarreran geratu ziren ama-alabak, zakutoa besotik zintzilik eta burua tente. Etxe sarreran zain zeukaten emakumea, dotore jantzia, takar hutsa omen zen arren: *doña* Nieves Zanguitu, Vicente Reparaz zenaren alarguna.

Kosta egiten zen haren esku mardulari begirada kentzea, indarrez heltzen baitzion biloba txikiarenari, neskatilaren eskutxo bere atzaparrarekin hausteko zorian. Sudur-makoaren gainean, zimurrez inguratutako bi begi beltzek begiratzen zieten etorri berriei.

Ekaineko eguzkiaren azpian, arrano begi haiek zelatan, soinekoa azalera itsasten zitzaion Mikelari. Edozein unetan egingo zion salto piztia hark. Amak eskua jarri zion sorbaldan, eta hotzikara batek astindu zuen gaztearen gorputza, arranoaren atzaparrek heldu baliote bezala. Sakon hartu zuen arnasa, sustoaren

ostean. *Ras-ras*, etorri zitzaion burura lixibaren hotsa, benetako oilo ipurdia jartzen ziona. «Luzia, Luzia, etxerik ez duen alargunarentzat ez dago lixiban aritzea beste erremediorik, eta hotzak dira Idiazabalgo urak». Begiak itxi zituen, ama aholku eske joan zitzaionean bikarioak erantzun ziona gogoratuz. Arranoa, lixiba. Lixiba, arranoa.

«Umez jositako alargun batek baditu nahiko putre inguruan bueltaka bestela ere, zapaldu, eta, ahal izanez gero, jan ere egingo luketenak», esan zion Mikelak bere buruari, «ez naiz ni oztopo izango. Etxe ederra da, jende garrantzitsua; asko ikasiko dut haien artean, eta egingo dut lagunena bat akaso».

Han geratu behar zuen, nahiz eta nahiago zuen ahizpekin baserrian jarraitu. Nahiz eta gusturago joango zatekeen alondegira ardoa erostera, Beheko-etxeko Andres ikusteak sortzen zion ilusio izpia elikatzeko. Nahiz eta nahiago zuen auzoko lagunekin elkartzeko tarteren bat bilatu.

Zapata takoidunen hotsak apurtu zuen isiltasuna doña Nievesen alaba, Elvira Reparaz Zangitu, soinekoa eskuarekin jasoz agertu zenean. Sekula ikusi zuen emakumerik finena iruditu zitzaion Mikelari. Ez ederra, agian, baina fina bai. Alde batera orraztua zeraman sorbaldaraino iristen zitzaion ile iluna, ondo kardatua goiko aldean eta kiribil leunak bizkarraldera erortzen zitzaizkiola. Azalak arroz hautsekin-edo argitua zirudien, eta amarengandik zetorkion sudur-konkorra ere lirain geratzen zen haren aurpegian.

–*Buenos días. ¿Les apetece un café?* –eskuekin keinu eginez gerturatu zitzaient, eta Luziak ezezkoa egin zion buruaz, desenkusatur. *Cuidaremos bien de su hija. No se apure.*

Eskerrak eman zizkion Luziak, hala izango zela jakinik: ez zituen alferrik bidali hara sei alaba. Mikelak amari begiratu zion, listua irenstearekin batera: nekatu aurpegia zeukan, baina amore moduko bat zerion, hizketan hasi zenean.

–Sagar garaia ailegatzen denean astean bitan etorriko naun. Bitartean, badakin: zerbait behar izatera, esnezalearekin hitz egin –hatz erakuslea luzatu zuen–: Akordatu, joaten haizen tokietan eskuak garbi ibili.

Baiezkoa egin zion buruaz Mikelak, eraikinaren fatxada zuriari begira. Ausartu ere nola egingo zen, ba, halako toki batean lapurreta egitera?

Bihotz-formako motiboek hornitzen zuten baranda beltza ikustean, nahi gabe etorri zitzaion burura beren etxeko leihoetako egur laztua. Aurreko astean